

## **Arrue, Antonio**

Asteasu, 1903 – Donostia 1976

Egun on, Arrueren familiako, Euskaltzainburu jauna, eta zuoi denoi.

Nire txanda omen dela orain esan didate. Baina nondik nora hasiko naiz ni hizketan? Izan ere, Euskaltzainburuak esan duen bezala, Antonio Arrueren liburu onetan eskuhartzea izan dut, baina eskuhartze oso xumea, guztiz apala izan da nirea. Tartekotza soil-soila besterik ez tut egin bost-sei urtean egunero hitz egiteko zoria izan nuen Antonio Zavalarekin eta nola edo hala Antonio Arrueren liburu hau azkar argitara eman nahi zuen Euskaltzainburu jaunarekin. Horregatik, gogorra egiten zait benetan Antonio Zavala nere maisu eta lagun miretsiaren hutsunea betetzen gaur hemen egon beherra. Eztakit zer esango lukeen hemen ikusiko banindu.

Hala ere gusto haundiz onartu nuen aurkezpen honetan Euskaltzaindiarekin eta Antonio Arrue zenaren familiarekin izatea, Ameriketako nire itzuliaren ostean. Baina berriz diotsuet, nik ez tut honetarako inolako meriturik. Izatekotan ere (eta badakit hori ez dela nere meritua) han-hemen sakabanatuta zeuden Antonio Arrue zenaren lanen bilduma hau Euskaltzaindiak argitara zezan xaxatzaile izan nintzela bai; eta beste bilduma batean ere argitara zedin ahaleginak egin nituela, baina “donde manda capitán no manda marino”.

Eta Zavalak ezetz esaten zuenean, ezetz esaten zuen.

2008ko Durangoko Liburu eta Disko Azokarako liburua aurkeztu eta kaleratzeko ahalegin berezia egin zuten Euskaltzainburuak eta baita Antonio Zavala berak ere. Ahalegin horretan bien tartean egotea tokatu zitzaidan, honek eskatu eta hari aginduz, Euskaltzainburuak eskatzen zizkidanak Zavalari ahal nuen gozoena transmititu eta azkar-azkar azken zuzenketak egin zitzaizkidan animatuz. Egunak agudo joaten dira ordea holakoetan, eta abenduko Durangoko azokak hanka egin zigun.

Orain eskuartean duzue, ordea, liburua; eta Antonio Arrueren lan askoren bildumarik onena dela esan dezakegu *Idaztiak eta Hitzaldiak =Escritos y conferencias* liburu hau. Aurkezpena eta argitalpenaren paratzaile Antonio Zavala izan da, bere azken lana ikusi gabe joan bazen ere gure artetik. Euskaltzainburuak esan duen bezala, lehengo urtarrilaren 2an hil zen Antonio Zavala, Xabierren, *Auspoa* bilduma harrigarria hasi zuen tokian bertan.

Badakit gauzak diren bezala direla, eta eskuartean dugun Antonio Arrueren liburuaz goza dezazuen gonbidatzen zaituet.

Zavalak idatzi zuen hitzaurrea bera ere bitxia egin zitzaidan, idatzi eta begiratu bat emateko eskatu zidanean. Nik banekien Gipuzkoako karlista alderdiaren buruzagietako bat izana zela A. Arrue. Errepublika denboran han eta hemen makina bat hitzaldi egin zuela; eta 1936ko gerra hasi eta

Donostia errepublikaren mende egon zen denboran, bere burua salbatzearen, ezkutatuta egon behar izan zuela. Gerra ondoren, berriz, Francorekin etzegoan konforma nonbait, eta behar baino gorago hitz egiten zuelako, agintariek erbestera bidali zuten, Gijon-era, eta han urtebete-edo egin behar izan zuen.

Zavalak dioen beste hau ere ez nekien: “Ala ere, beste au neronek entzun nion beste batean. Karlistek Karlos Hugo zuten beren buru, eta alderdiaren ideologia gaurkotzen eta aldatzen asia zan. Eta Arruek orduan esana: Nik tradiconalista izaten jarraituko det. Baiña Karlos Hugo eta oiekin ez det ezer ere nai”.

Arruek, bere hitzaldi eta idazlan askoren artean EGAN aldizkarian bazuen bere txoko berezia ere, eta han idatziekin bere *Jan-Edanak* liburua (Kutxa 1979) argitaratu zuen.

Bitxia da, baina orain sukaldaritzza eta gastronomia prentsa idatzian, irratian eta telebistan hain modan dauden garai honetan, kontura zaitezte Antonio Arrue astiasuarra aintzindari izan zela jan-edan kontuetan. Bazekiela hark sukaldeaz zenbat goza ditekeen/zitekeen, euskaldunok eta euskaldun ez direnak ere maite dutela sukaldaritzza. Jose M<sup>a</sup> Busca Isusik, Jose Juan Castillo zaharrak (oraingoaren aitak) eta abar gazteleraz idazten zuten garaian, Arrue legelari jaunak euskaraz idatzi zuen sukaldaritzaz eta gastronomiaz. Aintzindari izan zen, beraz.

Beste belaunaldi batekoa izaki, nik hurrundik bakarrik izan nuen zuen aita zena ezagutzeko aukera; Irratian kazetaritza-lanetan hasi berria nintzela, Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolarien Txapelketa nagusi haietan ikusi nuen lehenengoz, eta epai-mahaiko taldean ezagutu ere - 1962ko urtarrilaren 6an, 1965eko urtarrilaren 1ean, eta 1967ko ekainaren 11n-.

Oso serioa iruditu zitzaidan beti gizon hura, eta txapelketa amaitu eta sariak ematekoan egiten zituen hitzaldiak ikaragarri gustatu zitzaizkidan. Hizlari bero-beroa zen, sutsua, bertsolariak bezain hitz-etorri ederrekoa; eta Asteasuko euskara ederrean mintzo zen. Nik ez nuen izan mitinetan-eta hola Antonio Arrue jauna ikusi eta hari entzuteko aukerarik, baina ez dut dudarik egiten gaurko politiko asko baino mitinlari oparo eta beroagoa izango zela, berezko euskara eder eta etorri bikainarekin.

Eskerrik asko.

Donostian, 2009ko apirilaren 3an  
Joxemari Iriondo